




LITERATURA. Iban Garro poeta atzo, Donostian, *Euri beroak* olerki liburua eskuetan duela.
JON URBE / FOKU

«Hautsiaren edertasuna» aldarrikatzeko ausardia

- Iban Garrok 'Euri beroak' olerki liburua eman du argitara.
- Hitzen azpian 36ko gerra garaiko gertaera ilun bat duela, denboraren bertikaltasuna bilatu du, tokian ainguratuta.

Garbiñe Ubeda

DONOSTIA— Iban Garro Alzurik (Lesaka, Nafarroa, 1974) Blas de Otero – Angela Figueira nazioarteko poesia lehiaketa irabazi zuen iaz, eta haren ondorio da *Euri beroak*, Garroren bigarren poema liburua. Lehiaketa baten emaitza izan zen haren lehen olerki bilduma ere, *Larrosa bat Groenlandian*, Iruñea Hiria saria jaso izanari esker plazaratu baitzuen, 2023an. Erein argitaletzeko editore Inazio Mujika Iraolak lagunduta aurkeztu zuen atzo poetak bere liburu berria.

Olerki bildumako protagonistari begira jarritz gero, haren iraganeko hautsia izango litzateke euria, eta tantarik tanta dator kio begietara. Mujika Iraolak euria-

ren sinbolismoa hartu du hizpide Garroren liburuaren gaineko argibideak ematean: «Ez da giroaren kontu hutsa, bizitzaren ikurra da, garbitzearena, dolaarena, eta finean, berritzearena». Liburuari darion «isiltasunaren poetika» txalotu du editoreak: «Hitzen eta isiltasunaren artean aurkitzen duen orekan, esan gabekoak indar handia hartzen du». Mujika Iraolak elkarrizketa bat samatu du *ni* poetikoaren eta ispluaren artean. Nolanahi ere, «oso poema intimoak» iruditu zaizkio editoreari.

Garrok familiako pasarte ilun bat ipini du poema liburuaren sorburuan: «Duela gutxi jakin genuen, eta ez da ziurra, baina, antza denez, faxistek birraitatxiri amarrua jarri, eta Mendaurren hil zuten, mendian gora zihoala,



«Ezagutu ez dudana pertsona batekin egon naiz hizketan. Erlazio edo hizketaldi poetiko bat izan da»

IBAN GARRO
Poeta

«Erritmo ia hipnotiko batera eramaten zaitu. 'Euri beroak' irakurtzea entzutea da. Belarrira kontatzen ari zaizu»

INAZIO MUJIKIRAOLA
Editorea

1937an». Udaberrian izan omen zen, ekaitz gau batean. Hortik dator *Euri beroak* izenburua. «Euri lodi hori irudikatzen du», esan du Garrok.

Familiari helarazitako bertsio ofiziala beste bat izaki, jakin beharrak gaina hartu zion Garro. Gertaeraren azpian dagoen egia, «egia poetikoa», bilatzen ari du geroztik. Baina ez hala-hola: «Ez nuen iragana ekarri nahi gorpuz bat balitz bezala. Orainetik kontatu nahi nuen, atzeko edo betiko begirada horretatik ihes egitearren, eta horretarako garrantzi handia hartu du tokiak». Garroren eguneroko lekuetatik abiatuz idatzita dago liburua. Kafetegietan aritzen omen da anitzetan, eta bertatik ikusten duena azaltzen du sarri: ostatua, bide-ereta, kafea, leihoa, euri tantak kristalean, jendearen joan-etorria... «Errealitateko momentu horiek hagitx lagungarriak dira poemak idatzeko orduan. Errealitate horretatik abiatzen naiz», azaldu du. Toki jakinek, hortaz, parada ematen diote poetari iragana eta oraina «denboraren bertikaltasunean» lotzeko. Eta, prozesu horretan, 36ko gerran galdutako birraitatxirekin konektatu du: «Esperientzia ederra izan da, ezagutu ez dudana pertsona batekin egon bainaiz, eta harekin hitz egin baitut. Erlazio edo hizketaldi poetiko bat izan da».

Emozio ugariren agerraldia ere bada liburua, Garrok esan duenez: «Beldurra, amorrua, onartu ezina, tarteka hitz gogorak ere jarri behar nituen, norbait hiltzeko desioa, desio erreala, gibelera begiratzea, eta maitasuna. Batez ere, baldintzarik gabeko maitasuna».

Hizkuntza bizia

Garrok bertsolaritza izan du habia literatura baino lehen, eta ezagun du. Mujika Iraolak Garroren idazkeran aurkitutako ezaugarri mordo bat zerrendatu ditu zaletasun horren adierazgarri; besteak beste, hizkuntzaren erritmoa, erritmo pausatua baina musikatua, hitzaren jolasa, onomatopeiak... Aipatu du, gainera, ahoz kotasunak garrantzi handia hartzen duela Garroren olerkietan: «Erritmo ia hipnotiko batera eramaten zaitu. *Euri beroak* irakurtzea entzutea da. Ematen du kontatzen ari zaizula belarrira».

Bigarren poema liburu hone-tan, baina, Garrok ahalegina egin du inprobisazioak eta bertso idatziek eskaintzen dituzten baliabideetatik urruntzeko: «Aurreko liburuan ez ote nituen gehitxo erabili, eta oraingoan neurtzen aritu naiz. Errimak sartu ditut, baina ez beti amaieran, baita esaldi tartetean ere, gustuko fonetika eta erritmoaren bila».

Oroz gaitetik, musika nabarmendu du poetak; anitzetan izaten omen du lagungarri idatzeko: «Olerkiari musika jartzea gustatzen zait. Eta lan honek badu abesti bat: hitzen hondoan dago. Horrek emozio batzuetara eramaten nau, eta duela ehun urteko gertaera bati begira jartzen lagundu dit».

Poemen estetikari dagokionez, «jarraitutasuna» izan du xede idazleak. Alde horretatik, olerkiak izenbururik gabe utzi ditu, eta, tarteka, hitz lauz idatzitako testu poetiko zuzenagoak ere egin. Garro: «Formatuak tartekatzea oso gustukoa izan dut, eta errazagoa egin dit geroko irakurketa».

Galderarik ere bada *Euri beroak* liburuaren barruan; besteak beste, zeri egiten dion ihesi jendeak. Mujika Iraolak pentsamendu existentzial baten zantzuak ere hartu dizkio olerki bildumari: «Norbere mugari buruzko galderak dakartza. Baina, gainera, hautsiaren edertasuna aldarrikatzeko ausardia izan du». ●